

# Herri Aldizkaria OTAMOTZ

□ Urtarrilaren 14an urtebete beteko du **OTAMOTZ** herri aldizkariak.

Denbora honetan, Urretxu eta Zumarragako albisteak jaso eta bertako bazterretako kontuak eta zenbait herri-tarren berri azaltzen saiatu da. Zorionak **OTAMOTZ** bere lehen urteurrenean!!

□ Ezaguna da jadanik abenduren 10ean Itsasondon gertatutako ezbeharra. Jazoera honek herri osoa txunditu eta samindu zuen, bai **IÑAKI MENDILUZE "TXUGI"** ezagutzen zein ezagutzen ez zutenen artean. Gazte honek Zuzenbide ikasketak bukatzeaz zeuzkan eta Ertzantzan egiten zuen lan, Urolako jokalaria zen, baita herriko gazte giroan oso ezaguna ere. Honekin lotuta, abenduaren 30ean Urolak bere omenezko partidua jokatu zuen Santurtziren aurka, baita garaipena lortu ere. Gertakizun hau luzaro gogoratuko da bi herrietan eta dudarik gabe minez.

□ **URRETABIZKAIA ANAIEK** bigarren urtez jarraian, DV-ETB txapelketaren eskuz binakako finalean sailkatzea lortu zuten. Txapelketa honek, afizionatu mailan jokatzeko diren artean ospe handienetakoa du. Unai eta Beñatek, Badiola eta Apeztegiaren aurka jokatu zuten Zarautzeko frontoian. Partidu bizia eta emozioz beterikoa izan zen markagailua parekatua izan baitzen partidu osoan zehar. Hala ere, azkenean, Urretabizkaia anaiek etsi beharra izan zuten 22-17 galduz.

□ Abenduaren 26an hasita eta 4 egunetan zehar Zintzo-Mintzoko Gazte Taldeak antolatutako *gazteentzako sukaldaritza ikastaroa* izan da. 15 bat gazte bildu dira **AITOR PRIETO** irakasle zutela Txirimiri Elkartean. Bertan, hainbat oinarrizko janari prestatzen ikusi eta ikasi dute, makailua pil-pil eran edo saltsa berdean, espagetiak hainbat modutan, arrain-zopa, zenbait saltsa, oilaskoa ...



□ Urola Garaiko Mankomunitateko exekutibak, eskualdean sortu nahi den **ESKOLA POLITEKNIKO**aren proiektuaren azken berriak eman ditu. San Jose ikastetxea Mankomunitateak erostea eta gero hau Hezkuntza Sailaren esku uztea aukerarik onena dela adierazi da; hala ere, bide hau jarraitzeko Hezkuntza Sailak Legazpi eskolako langileria bere gain hartu beharko luke, 17 irakasle hain zuzen ere. Hezkuntza Sailak Legazpi eskolako langileria beregain hartuko ez balu *fundazioa* osatzearen aukera onartuko litzateke eta etorkizunean, aukera izanez gero, bide publikoa hartuko luke. Bi bide hauen arteko aukeraketa Hezkuntza Sailak urtarrilaren 12an emango duen erantzunaren baitan dago. Ikastetxe berriaren atak 96-97 ikasturtean ireki nahiko lirateke.



QUEVATZALDOR

Zintzo  
Mintzo  
ELMARTEA



F/S

Argazki Estudioa  
Argazki eta bideogintza  
Ipeñarrieta, 20 © 72 23 19 URRETXU

Aizkorri, 1 © 73 06 84 LEGAZPI



JAKA

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18  
20700 URRETXU

© 72 14 13



JAKIN

Seguritate kutxak

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU



## Mari Jose Bermejo: "Urretxu eta Zumarragarrentzat 1996a ez da 1995a baino txarragoa izango, beharbada hobexegoa."

Urte berrian sartzen garenean elkarri urte zorionsua opa diogu baina hasitako urtearen aurrean makina bat kezka izaten dugu. Guk, M. Jose Bermejorengana jo dugu, Urretxuko azti eta etorkizun igarlearengana, 1996 urtea zer-nolakoa izango den galdetzerá eta bide batez hain iluna dirudien azti-mundu hori pixka bat hobeto ezagutzera.



**OTAMOTZ:** Noiz hasi zinen gaitasun horretaz jabetzen?

**M.J.B.:** Gaztetxoa nintzenean ere inguruan gauzak gertatzen ziren, baina nire semearen heriotza hogeita lau ordu lehenago aurikusi nuenean, orduan, jabetu nintzen gaitasun horretaz, baina badakizu, gaitasun hori nik neure buruari onartzea kostá egin zitzaidan. Hasieran lagunentzat hasi nintzen gauzak egiten baina pixkanaka-pixkanaka zabaldu egin da. Garai batean herritik kanpo herrian baino ezagunagoa nintzen, pentsa ezazu Dominikar Errepublikatik ere deitu izan didate. Herrian gutxiago, guri asko eskatzen digute, beti asmatu egin behar duzu, eta herrian ez asmatzeak beldur handiagoa ematen dizu, herrian batzuk ezagutzen ninduten baina ez orain bezala. Herrian, Ordesan desagertuta zegoen Iñakiren gorpua aurkitzeko eman nuen laguntzaren ondorioz naiz ezaguna. Jendeak konfidantza handia izan zuen niregan, oso babestua sentitu nintzen. Handik aurrera sinesten ez zuena sinesten hasi zen, geroztik jendeak errespetu handiagoa dio nik egiten diodanari.

**O:** Baina jendeak azti-igarle munduari beldur handia dio.

**M.J.B.:** Bai, hori egia da. Guk beste edozein pertsonak baino psikologia handiagoa behar dugu. Dena ezin diozu esan, egia osoa ezin diozu inoiz esan, prestatu egin behar duzu.

**O:** Zer nolako jendea etortzen zaizu?

**M.J.B.:** Denetik, aberatsak, behartsuak, legegizonak, erlijiosoak, gazteak... gazte asko, beharbada %80a. Hauen galderak maitasunaren eta ikasketen inguruan izaten dira. Azterketak dituztenean ere etortzen

dira, baina noski, ez badute ikasi ez dute gañdituko, baina lasaitzen laguntzen diet. Eritxetatek ere etortzen dira, gaixo batek gaitza non daukan jakiteko etortzen dira, ez dira sendatzerá etortzen baina bai lasaitzerá, minik ez izatera, nire laguntza jasotzerá hitz batean. Negozio berriren bat ireki behar dutenak ere etortzen dira, desagertutakoak... Bermeoko gurutze gorriarekin lan egin dut itsasoan desagertutakoak aurkitzeko... 95. urtea ona izan da, desagertu gutxiago izan baita baina desagertuak direla eta egun berean zazpi dei ere izan ditut. Animaliak ere aurkitzeko etortzen dira... Ahotsagatik, begiradagatik, ibileragatik, pertsona nolakoa den jakin dezakezu (eta hemen elkarrizketa honen egileari ikusten zizkion ezaugarriez hitz egiten hasi zen, eta aitortu behar dudanez gauza asko asmatu zuen). Beti burua errespetatu behar duzu, ezin zara barruan sartu, ezin da arazoa handitu, irtenbidea eman behar zaio beti.

**O:** 1996 nolakoa izango da Urretxu eta Zumarragarrentzat?

**M.J.B.:** Nik gaztedi oso sana ikusten dut. Gaztedia kontzertuen bidez adierazi nahi da, negatiboa dena kontzertuen bidez bota nahi dute kanpora. Helduek eskaini diegunerako gaztedi ona daukagula esan dezaket. Zumarragako eta Urretxuko gazteen artean elkartasun handia ikusten dut.

Ekonomia arloan urte hobeak egon direla esan daiteke, baina 96an ez da dendarik itxiko, ez da okerragora joango, beharbada zertxobait hobetuko da. Lanpostuak egongo dira, baina beti behin-behinekoak. Lantegirik ez dela itxiko uste dut. 96an mantendu edo zertxobait hobetu egingo da, baina ez gara okerragora joango.

Politika arloan, herri mailan, gauzak antzerá jarraituko dute. PSOEk indar handia izaten jarraituko du. Espainia mailan berriz, argi dago PPK gora joko duela.

Euskarak herri mailan indarra hartzen ari dela eta indartuz joango dela ere uste dut.

Gure herritar bat urte batzuk barru pertsonaia oso garrantzitsua izango dela argi eta garbi ikusten dut.

Euskal Herri mailan gauzak okerrago ikusten ditut, ez dut irtenbiderik ikusten, lan egoera ez da hobetuko. 96an gauzak okertu egingo dira, ez dira eseriko hitz egitera eta arazoak areagotu egingo dira. Etorkizunean lehendakari gaztea ikusten dut, honek era desberdinean egingo du lan, ideia berriak ekarriko ditu, agindutakoa beteko du, berarekin etorkizun hobeá izango du. Estatu mailan garbiketarekin jarraituko dugu, oraindik ezkutuan dauden makina bat gauzaren berri izango dugu, 96an gauza asko argituko da. Ez da izango urte lasaia, ez horixe.

**O:** Entzun dut, irratian programa bat daukazula.

**M.J.B.:** Bai, Segura Irratian hamabostero programa bat egiten dut. Larunbatetan egiten dut, arratsaldeko 5etatik 5'30etara lehiaketatxo bat izaten dut eta gero gero gai interesgarriei buruz hitz egiten dut. Orain, adibidez, urte amaiera - urte hasiera zela eta, urtea ondo hasteko erritualak azaldu ditugu. Horrez gain eta irratiz kanpo, erlaxatzeko moduak ere irakasten ditut astearte eta asteazkenetan.

3.000 m2 ALTZARIZ JANTZITA

ALTZARIAK

**LAGUEA**

Iparragirre, 42 © 72 01 56 URRETXU

ZURE ETXEA APAINTEZKO

LIBURUENDÁ

**GANBARA**

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45  
20700 URRETXU





Abendua iristean guztioi, haurtzaroko oroitzapenak datozkigu burura... Bai, abendua ikastolan garai berezia izaten zen. Gabon kantak entseiatu ere egin behar izaten ziren eta horretarako guztiok entseiuak egiteko frontoian elkartzten ginen. Jose Martinen, Aita Jose Agustinen edo gero Aita Jesus Mariren gidaritzapean egindako entseiuak gogoan ditugu. Oraindik ahaztu ez ditugun abestiak entseiatzen genituen: "Ixilik ixo,

ixilik ixo Josu haurtxoa lotan dago", "Horra Mari Domingin...", "Belengo estalpean jaio da Josu... emaiozu musuuuu" u luze-luze eta bortitzarekin amaitzen genuen abestia, "Ikastolako haurtxoak gara...", "Horra, horra, gure Olentzero..."

Gero kalean kantatzeko eguna iritsiko zen, amak askotan baserritar jantziaren azpian jertse lodi-lodia jantziko zigun, askotan hotz handia

eta euria egiten baitzuen, baina gu hain gustora ibiltzen ginen...! Arantxa Urrate andereñorekin azaltzen den umerik ezagutzen al duzue? Gaur egunean hogeita hamar urteren bueltan gabiltzanok gara...

Argazki honen bidez Otamotz herri aldizkaria egiten dugunok bere irakurle guztiei urte berri zorionsua opa nahi diegu. Hala bedi guztiontzat!!



**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



**MAPFRE**

**Aseguru etxea**

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA



*Mutua General de Seguros*

Iparragirre, 11-etxeazpia  
20700 URRETUXU

© 72 25 99



**ILLARGI, E.A. okindegia**

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETUXU

**Munch**

**Barne jantziak - Lencería**

Legazpi, 9 © 72 43 58 ZUMARRAGA  
San Martín, 18 © 42 42 14 DONOSTIA



## Zer eskatuko zenioke 96 urteari?



Pello Biain: 33 urte.

Ba, ohizkoa, gizakion funtsézko beharrak betikoak baitira: osasuna, maitasuna eta ogibidea. Munduari eta Euskal Herriari dagokionez, pakea, justizia eta gizabidez eta sufrimendurik gabe lortutako askatasuna.




Miren Gurutze Mendizabal: 21 urte.

Aurtengoa adinako izatearekin konformatzen naiz, iazkoa urte ona izan baita.



Danel Iurrebaso: 10 urte.

Urretxun polikiroldegi berri eta oso konpletoa egitea, bidegorria Legazpiraino luzatzea bizikletan lasai ibili ahal izateko.



Nekane eta Irene Iurrebaso: 14 eta 13 urte.

Pakea, maitasuna, bidaia bat munduan zehar.



Senegaldarra da, duela sei urte bere bizimodua hobetu nahian, Ordizian zuen lehengusu batengana lan bila etortzeko erabakia hartu zuen eta harrezkero behin bakarrik joan da sorterrira. Orduan ezkondu zen, duela urte t'erdia, baina emaztea bertan utzi eta Euskal Herrira itzuli zen berriro ere, lehengusuarekin eta beste bi herritarrekin batera bizitzera eta bere esanetan, aurrera ateratzeko zaila den kaleko salmentako ogibidearekin jarraituzera.

Ordizian daramatzen urteetan Euskal Herriko herri asko ezagutzeko parada izan du, negu partean Doneztebe, Elizondo, Leitza, Tolosa, Aretxabaleta edo Soraluzeko azoketan saltzen saiatzeaz gain, udan festarik festa lanean aritzen baita.

Egun, duela hiru urte baino gutxiago saltzen bada ere, ferietan ere, sosaren bat ateratzen saiatzen da eta aurten Santa Lutzitan Urretxun izan da, lanean. Ez zuen zortetik izan, eta haserre ere azaldu da, saltzaileen toki aukeraketarako zozketan izan ondoren, lekurik txarrenetakoan jarri behar izan zuelako postua, zozketan parte hartu ez zuten saltzaile askok hartu baitzituzten tokirik onenak.

Paisa, Beltza edo Joxemari izenak umorez hartzen dituen honek, lan egiteaz gain, euskara ikasteko tarte ere hartzen du. Euskara asko gustatzen zaion hizkuntza omen da eta hizkuntza ondo ezagutzeko asmoz, Ordiziako euskaltegian eman zuen izena. Bertan sei hilabete besterik egin ez baditu ere, euskaraz oso ondo moldatzen dela eta euskaraz elkar ulertzeko inongo arazorik ez duela garbi azaldu zigun euskara hutsean egindako elkarrizketan.

KHADIM FALL

EDURNE

Punta puntako moda

Aukerarik hoberena  
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA

MASTER - Hezkor  
CADENAZumarragako elektrogailu  
erakusketarik handiena!Prezio eta modeloetan aukera  
benetan aparta!Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31  
20700 ZUMARRAGA


BIONA

AROSATEGIA

© eta Faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa  
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutzaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



## Intxaur Saltsatik Turroira

Tradizioari muzin eginez, gabonetako jaki berriak dastatzeari ekin diogu.

Ohiturak beti ohitura izan behar omen dute baina urteak pasa ahala, eraberritzea ezinbestekoa da. Hau da hain zuzen Gabon egunetan janaria prestatu behar duen sukaldari batek baino gehiagok pentsatzen duena. Nahiz eta oraindik funtsezkoak mantendu, beste batzuk saihestu egiten dira, jaki berri batzuen mesederako. Argi dago bakoitzak bere gustu edo ahal duenaren arabera jaten duela baina gu, globalki sailkatzen saiatu gara.

Ezin dezakegu orokorrean hitz egin baina gabonetako jakiak aldatzen ari dira zenbait etxeetan behinik-behin. Zenbait usadio mantentzen dira baina ez denak. Egun berezi hauetan usadioa omen zen olio azak jatea. Asko jaten zen beste barazki bat azalorea zen.

Bigarren plater moduan, bakailaoa edo kapoia jaten zen. Gaur egungo kontuak bestelakoak dira. Tartekoak janez hasten gara. Langostinoak, aukerarako pateak, kroketa batzuk agian... Jarraian gehiegi betetzen ez duen zerbait jaten da, arrai zopa kasu. Hala, azkenerako uzten da janari astuna. Arkumea da normalean asko jaten dena, angulak, bisigua eta bestelako arrai zein haragi preziatuak ahantzi gabe.

Egundaino gehien iraurarazi direnak postreak izan dira. Hemen ere zenbait aldaketa egon dira baina konpota oraindik ere etxe askotan jaten da. Intxaur saltsa, euskal turroia bezala ezagutua izan dena, oraindik ere mantentzen da baina ez konpota bezain beste. Intxaur saltsak turroiari utzi dio bere lekua, baita mazapan, bonboi eta honelakoei. Edariei dagokienez, janariarekin

batera, ardoa edaten jarraitzen da. Orain ordea bestelako edariak ere asko edaten dira. Txanpaina da ugarien edaten dena. Anis edo pattarra ziren lehen edaten ziren likoreak, egun ordea, era guztietako konbinatuak edaten dira..

Aldaketa hauen zio edo zergatiak aztertzean, ondorio bakar bat atera dugu. Amona etxean duten familia gehienek tradizioari eusten diotela konturatu gara, amona berak prestatzen baititu bere garaiko jakiak. Ordea, amona ez dutenek janari berriak dastatzeari ekiten diote, urteetan tradizioa izan dena ahantziz. Erdiko bidea hartzen duenik ere bada, hau da zerbait mantendu eta beste zerbait eraberritu. Hau egiten duten familiek normalean postreak mantentzen dituzte.

## Gabonak bapo, eta orain?

Gabonak joan zaizkigu eta honekin batera baita festa ospakizunak ere; izan ere, ohikoa denez afari-bazkari bereziak eta gehiegizko kaloria kontsumoa izaten dugu garai honetan.

Bat baino gehiago larrituko zitzaigun jadanik kiloak gehitu zaizkiola eta, edo ez-ohiko elikadura masibo honek utzi dizkion ondorioez arduraturik. Beno ba, orrialde honen bitartez saiatuko gara arazoari tratamendu dietetikoa ematen.

Dieta hipokaloriko orekatua eginez gero gure energia balantzea negatiboa litzateke eta honela gantzak erreko genituzke. Argaltze erritmo egokia astean kilo batekoa litzateke. Era honetan, gantze kilo batek 9.000 Kilokaloria suposatzen dituzenez, eguneroko dietari 1.300 Kilokaloria kendu beharko genizkioke. Pertsona heldu normal baten eguneroko energiaren beharra ondoren adierazitakoa da:

- 35 Kilokaloria/Kg. bakoitzeko emakumezkoen kasuan.
- 40 Kilokaloria/Kg. bakoitzeko

gizonezkoen kasuan.

Honela kalkula genezake zenbat Kilokaloria beharko genukeen egunean.

Dietak ez luke inoiz 1.000 Kilokaloriatik jaitsi behar, kasu honetan ematen gorputzak beharrezko dituen elikagai guztiak ez baitira ematen. Azter ditzagun elikagai hauek banan banan:

- **Proteinak:** Hauek ez dira murriztu behar, gainera asegarriak izatearen berezitasuna dute.

- **Lipidoak:** Murriztu beharrekoak dira, hala ere murrizketak orekatua izan behar luke, bitamina liposolugarriak dituzte-eta.

- **Karbohidratoak:** komeni da murriztea, baina inoiz ez 100 gramotik behera.

- **Bitamina eta mineralak:** Hauek ezin dira murriztu, beharrezkoak baititugu beren neurrian.

- **Alkohola:** Guztiz baztertu, honek gramoko 7 Kilokaloria sortarazten du (baso bat ardo = 75 Kilokaloria; baso bat garagardo = 200 Kilokaloria). Freskagarriak ere baztertu behar dira

(Coca-cola bat = 3 zorrotxo azukre).

- **Ura:** 2-3 litro egunean zehar. Efektu asegarria du, toxinak iraitzen laguntzen du eta idorreriaren aurkako osagai egokia da. Giltzurrun eta bihotz arazoak badaude, ura gutxitu egin behar da.

- **Fibra:** Asko hartzea komeni da. Asegarria da eta peristaltismoa hau da, janaren iraganbidea hesteetan zehar, errazten du.

Beraz, badakizue barazkiak, lekadunak eta fruituak gehiago hartu behar dira kontuan; haragi, koipeki eta gozoak murriztu behar dira eta ur asko edan behar dugu. Eta noski, kirolak edo ariketa fisikoak zeregin honetan lagunduko digu, ez izan alferra, txandala jantzi eta gutxienez paseo bat eman ezazu bidegorrian barrena.

Eta ez ahaztu! ez dago produktu mirakulutsurik eta zerbait nahi duenari, zerbait kostatzen zaio.

Asier Otamendi  
Elikagaien Zientzia eta Teknologian  
Lizentziatua.





A ze flaxa hartu genuen OTAMOTZeko lankideok aurreko abenduaren 28an arratsaldeko 4ak aldera elkartera etorri ginenean. Bagenekien bai, Inuxente eguna zela, baina *Inuxente* batek egindako inozokeriagatik, kanpoan geratu ginen. Arrazoa? bi txotx sarrailan barrena - eta txotxen artean txotxolo bat.

Inuxente, potente, txakurrak buztana ... tente!!!

## NONDIK DATOR!

### PLAZAOLA

Ezaguna dugun abizen hau bi osagaiez osatua da. Lehenengoa *Plaza*, enparantza esanahia du eta *Plazaola* edo *Plazabeitia* bezalako abizenetan ageri da. Bigarren osagaia dela eta, *ola* (edo *olha*) eratorpenezko atzizki lokala dugu; nahiz eta guretzat *ola* hitzak burdinola esanahia izan, jakintsuek ezin dute *ola* honek burdinola, etxola edo leku esanahia duen erabaki. Hor ditugu esate baterako, Iraola, Loiola, Otaola, Urkiola... *Ola* ere patronimikoekin edo adjektiboekin ere agertzen zaigu.

Urretxuko San Martin auzoko 29 urteko gazte hau Legorretako erretorea da gaur egun. Hona, 24 urte zituela, Lasarten lau urtetan diakono moduan lan egin ondoren etorri zen. Hasieran 81 urteko apaiz batekin egon bazen ere egun apaiz bakarra da eta lan franko du. Hala nola Legorretako parrokiar arduratzeaz gain, Goierriko bailarako 26 parrokiar gazte pastoralaz arduratzen da, Karitas, espetxeratuak, Gizaki Helburu (Proyecto Hombre delakoa), Hezkide, bisitak, deiak... lan ikaragarria.



Urretxun gauzak egiteko gogoia ezagutu zuen bai auzoko elkartean, Artizarren, karrozak... Berak herriari zerbitzua egin nahi ziola garbi ikusi zuen eta zerbitzu hori Elizaren baretik egitea erabaki zuen.

Elizak behartsuengandik gertu egon behar du, sofritzen dutenengandik gertu eta Xabierrek Eliza behartsuengandik sekulan baino gertuago ikusten du. Denen lagun den Eliz batean ez du sinesten baina denekin harremana nahi duen batean bai.

Gabonetan Parrokiko gazteekin gabon kanta kantatuz eta opariak emanez gaixo dauden zaharregina joaten da, umeentzat jaiotzak egiteko tailerrak izaten dituzte, asteartero baketzearen eta elkar adiskidetzaren alde biltzen dira ... Etxera afaltzera etortzen da, eta nola ez ba!, koadrilakoekin egoten da, berarentzat koadrila oso erreferentzi inportantea baita. Eguberri eguneko eta urte berriko arratsaldea berriz Martuteneko espetxean pasatuko du.

Legorretara Urretxuko zer eramango lukeen galdetu diogunean, bi leku aipatu ditu, Irimoko gurutzeta, ikusi bezain pronto etxean dagoela sentitzen duela aitortu baitigu. Hemen ezagutu duen herriaren alde gauzak egiteko gogoia ere (Artizar, karrozak...) gustura hartuko luke Legorretan. Han dagoen desberdintasunak, zailtasunak gainditzeko gaitasuna ekarriko luke berriz Urretxura.

Bera Legorretako erretore den bitartean bere parrokiaren urteko lehenengo irteera Irimora eta *zazpi puntetara*, eta irailekoa karrozak ikustera etortzea izaten jarraituko dutela dio inolako zalantzarik gabe (Eta hori Zalantza koadrilakoa izanda!!).

### XABIER AZKOITIA

## ELIZ - KALE

### L AUTOESKOLA

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

### TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

## HEGIALDE AUTO

- KONPONKETAK OROKORREAN
- IBILGAILU SALMENTA
- GARBIKETA ZUBIA

ZERBITZU OFIZIALA



PEUGEOT

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU

Montajes e Instalaciones Electricas

**HERCE**  
Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4 © 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi © 72 42 66

20700 URRETXU



**SANTI PEREZ: "MARATOI BAT BUKATZEKO ASMOA DUT ORAINDIK..."**

Santi Perezekin elkarrizketa bat izatea atletismo munduan barrena sartzea da. Gauza asko daki Santik, 16 urte zituenetik baitabil arlo honetan; gaur egunean ere entrenatzaile gisa ari da.

Berak entrenatzen dituen guztien artean beharbada, Diego Garzia dugu ezagunena; horregatik, beste hainbat gauza interesgarriren artean, kirolari honen helburuen berri lehen iturritik jaso dugu solasaldi honetan.

• Zein da atletismoan zure hasiera, bilakaera ... kontaiezazkiguzu zure markak, zein oroitzen dituzun etab.

16 urterekin Institutuan ikasten ari nintzelarik, Luis Mari Frankoren gidaritzapean hasi nintzen korrika egiten *frailetan*. Gustuko nuen kirol hori, eta bertan talde bat zegoenez, nire izena eman eta hasi nintzen. Ordurako Urola eratuta zegoen eta ni bertan sartu nintzen. Denetik egin dut, 100 metrotatik maratoina bitarteko. Baina gehien landu izan dudana fondo erdia eta fondoa izan dira. Maratoian 2 h. 32 min. da nire marka eta 1' 57" 800 metrotan. Oroitzapenei dagokionez denak onak dira, gauza txarrak erraz ahaztu baitituz. Bereziki Donostian parte hartu nuen 1. maratoia gogoratzen dut. Entrenatzen oso ondo pasatzen genuen. Nola entrenatu behar genuen ez bagenekien ere, ahal genuen moduan egin eta primeran pasatzen genuen.

• Zu Urolan hezia zara. Nola dago gaur egun Urola Atletismo taldea? Nola ikusten duzu bere etorkizuna?

Lehenengoz eta behin, Urola Atletismo Taldea jadanik ez dela existitzen esan behar da. Orain Legazpi eta Urola izandakoa elkartuz, Goierri Garaia osatu dugu. Hau orokorki onuragarria izan da, beste arrazoen artean, orain arduradun gehiago gaudelako. Azkenaldian, pertsona gutxi

ginen eta lan karga handiegia zen; hori zela eta, gure artean gogo eza somatzen hasi ginen. Ez geneukan bultzadarik aurrera egiteko. Orain arlo horretan indartu egin gara.

Bestalde, etorkizunari dagokionez

**"Etorkizunari dagokionez, haurrak dira gure geroa, baina ez dago sustapenik"**

haurrak dira gure geroa baina ez dago sustapenik. Klubek ez dute eskolen laguntzarik jasotzen. Badago adin kritiko bat, gutxi gora behera 13 eta 16 urte bitartean. Adin horretan haur askok kirola egiten dute baino ez gustuko dutelako, behartuta sentitzen direlako baizik. Ez dut uste adin horretan behar bezalako bultzada ematen zaienik eta eskolek eta irakasleek horretan badute zeregirik.

• Diego Garziaren entrenatzaile zara gaur egun. Noiz hasi zen zuen harremana?

Duela 13 urte hasi ginen elkarrekin lan egiten, berak soldaduzka amaitu zuenean, Santi Azurmendiren bitartez. Urolan hasi zen eta gaur egun Adidas taldean dago beste hainbat atleta



ospetsurekin batera.

• Nola ikusten duzu kirol arloan? Eta pertsonalki?

Kirolari bezala oraindik, 34 urte izanda ere, hobetzen ari da. Nire ustez maila altuan 1998rainoko bizitza dauka kirolari bezala. Aurtengo helburua bere denbora 2 h. 09'-ra jaitea da, eta egin dezake. Gure ametsa Atlantako 96ko Olinpiadetan domina lortzea da eta horretara goaz. Duela oso gutxiko erabakia izan da apirilean maratoi bat bertan behera uztea, aipatutako helburua lortzeko asmoz.

Gure artean oso ondo konpontzen gara, Diego oso irekia baita. Badaki oso ondo zer nahi duen. Badaki 3 urte dauzkala eta apustu handia egiten du horregatik eta gerokoak geroko.

Amaitzeko Santik hemendik herriotako haur guztientzat deialdia luzatzen du: "Lagun asko egiten dira kirol honetan eta momentu oso onak bizi izaten dira. Anima daitezela neska-mutilak euren zain baikaude"

Berak bitartean luzaro jarraituko du entrenatzen ahal duenera arte, Maratoi bat burutzeko asmoa du oraindik, eta benetan gogotsu ikusten zaio.

**URRET XU**  
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Iparragirre, 1 © 72 59 68 20700- URRET XU

KALITATEA • TEKNIKA • ZERBITZUA • MODA

ITURGINTZA



**LUIS ANGEL**

Gure erakusketan zain gaituzu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxa: 72 54 59



## HAURRENTZAKO ZINEMA

Igandetan arratsaldeko 16:30etan eta Pagoeta antzokian **Zintzo-Mintzok** antolatutako haurrentzako filmeak. Erredakzioa ixterakoan emankizunak erabaki gabe eta konfirmaziorik gabe daudenez gero, gainontzeko komunikabideetan lortu ahal izango duzue informazio gehiago.

## LEHIAKETA

**Urtarrilak 13: Santa Lutzitako feria** argazki lehiaketako sari **banaketa** eta proiektzioa Urretxuko Kultur Etxean.

## ZORIONAK



**Saioa Aranburu** Etxezarreta, urtebete bete du urtarrilaren 1ean. Zorionak zure lehengusuen eta osaba-izeben partez.



**Ainhoa Izagirre**, 25 urte *justo* bete ditu urtarrilaren 2an. Zorionak eta urte askotarako zure lagunen partetik.



**Javier Luzuriaga**, 26 urte beteko ditu urtarrilaren 17an. Zure lehengusuen partez. Zorionak!



**Mirari Ortiz**, 29 urte ditu urtarrilaren 9an. Zorionak **OTAMOTZEKO** kideen partetik!



**Rebeka Gallastegi**, 23 urte beteko ditu urtarrilaren 24an. Urtarrileko aldapa beherantz badoa ere, zu gorantz. Azkenean, atera genizun argazkia. Zorionak!



**Amaia Iturrioz**, 3 urtetxo bete ditu hilaren 6an. Zorionak Zintzo-Mintzoko Amaia, Aitor, Idoia, Marian, Jon eta Jonmikelen partetik.

## MAIRI

**Urtarrilak 17, asteazkena:** Arratsaldeko 4etan MAIRI Emakumeen Elkarteak antolatutako "Minbizi Ginekologiaren Prebentzioa eta Menopausia" hitzaldia. Hizlaria Lourdes Aritzituna doktorea, emakume mastektomizatuen elkarteko kidea.

**Urtarrilaren 22tik 25era bitartean:** Gurutze-puntuaren astea, arra-tsaldeko 15:30-17:00ra bitartean.

## ZINTZO-MINTZO BATZAR NAGUSIA

**Urtarrilak 27:** Goizeko 11etan eta Urretxuko Kultur Etxean ZINTZO-MINTZO Euskaltzaleen Elkarteko Batzar Nagusia.

Talde guztietako memoriak eta 96rako egitasmoak aurkeztu eta kontuen berri emango da. Guztiok, bazkide zein bazkide ez zaretenok parte hartu eta ideia berriak emateko gonbidatuak zaudete.

## MENDI IRTEERAK

**Urtarrilak 13, larunbata:** Goierri eta Ostadar mendi taldeek antolatutako Uren Banalerroaren Ibilbide Handiko 11. irteera, Auritzetik Orbaitzetako Ola bitartean.

**Urtarrilak 21, igandea:** Ostadar Mendi Taldeak antolatutako Trebiño konderrian zeharreko ibilaldia, Sasetatik irten eta Gasteiz inguruko Mendiolara iritsiko dena.

**Urtarrilak 28, igandea:** Goierri Kirol Elkarteak antolaturik, San Adrian (Bilbo) auzotik irten eta Pagasarri eta Gainekogorta mendietatik igaro ondoren, Laudiora iritsiko den ibilaldia.

## ATLETISMOA

**Urtarrilak 25:** Egun honetarako Goierri Garaia Atletismo Taldeak Gipuzkoako Eskolartekoen Txapelketa antolatu du Legazpin.

**URRETXUKO**

**ALDAPA**

The advertisement features a collection of anthropomorphic glasses and a hat. The glasses are labeled with names: 'LAKET', 'GOIKO KALE', 'ELZURRI', 'FLORIDA', and 'OSABA'. The hat also has 'OSABA' written on it. The glasses have faces and are holding various items like a small bottle and a glass. The background is a simple line drawing of a landscape with a mountain peak.